

**BATAIOA
SAIOA II**

SINESTEN IKASI



Saio honetan, partaideek Nazareteko Jesusi buruzko galdera egin dezatela da helburua. Merezi ote du Jesusen bizimodua ezagutzeak eta bizimodu hori geure egiteak?

Jesusek eta Berri Onak geure bizitza zentzuz bete dezaketen zoriontasunezko proposamena egiten digutela ikusaraziko diegu.

SAIOAREN HELBURUAK



Ebanjelistik jasotako zentzuzko proposamena era positiboan baloratu.



“Jainkoaren eskuetan” (Jainkoarengan uste osoa jarrik, Jesusek bezala) bizitzeak gizatiarrago eta zoriontsuago egiten gaituela konturatu.



Ebanjelioarekin bat egitearen ondorioz aldatu egin den zerbait, jarrearen bat, bizitza pertsonaleko jokaeraren bat, ... aipatu.



Jesukristorekin bat egiteak gure bizitza eta familia bizitza zentzuz betetzen duela ikusi.



GARAPENA

Ideiak batera jarri

Saioaren hasieran, Nazareteko Jesusi buruzko ideiak batera jarriko ditugu. Arbelean edo zatar-paperean marraztutako Jesusen siluetan idatziko ditugu ideia horiek.

Jesusen bizitza, irakaspena eta ekintzak dira Jainkoarengana iristeko bidea. Jesusek esan baitzuen: "Ni ikusi nauenak, Aita ikusi du", eta "inork ez du Aita ikusten nire bitartez ez bada". Jesus da bidea, egia eta bizia, bera baita gizon eta emakume guztioi bizitza bete eta duina emateko gizon egindako Jainkoaren Semea.




"Jesusi buruz dakiguna" (PPTaz baliatuko gara)

Ondoren, "Jesusi buruz dakiguna" testua irakurriko dugu taldean. Saiorako lagungarrien karpetan eskura dezakezue lagungarri izan daitekeen power pointarekin batera.

Testua irakurri eta, egonez gero, zalantzak argituta, ondorengo galderak banatu, lagun bakoitzak, hasiera batean, bihotzera eraman ditzan; ostean, horien inguruan elkarriketan jardun dezatela. Astia eman, lasai hausnar eta barnera dezaten, musika gozoa entzuten duten bitartean.

-  Ez genekien zerbait aurkitu dugu?
-  Zerbaitek bereziki arreta eman digu? Zerbaitekin ez gatoz bat?
-  Jesusen bizimodua, bizitzarako egiten duen proposamena... neure egin dezaket?
-  2020 urteren buruan, bere mugimenduak zergatik ote ditu jarraitzaileak?
-  Gaur egun Jainkorik gabe bizitzeko aukera izanik, zer eskaintzen du Jesusek bizitzarako eskaintzen duen proposamenak?
-  Bizitza bera ote da Jesusekin eta Jesus gabe?
-  Zentzuzkoa da niretzat gaur egun Jesusengan sinestea?

Taldearen -partaideen estiloa, egoera pertsonalak, taldekide asko ala gutxi diren...- arabera, eragileak ikusiko du galdera guztiak landuko dituzten ala aukeraketa egingo duen taldean elkarriketa pizteko. Aukeraketa egitea erabakiz gero, azkena, fedearen zentzuari buruzkoa, ez baztertu.



Eta... zer dala-eta Nazareteko Jesusen atzetik jarraitu?

Elkarrizketaren ostean, Jesusen jarraitzaile zergatik diren, Jesusek beren bizitzei nola ematen dien zentzua azaltzen duten gure elkarteko hiru lagunen lekukotasuna jasoko duen bideo laburra (gehienez 5-6 minutukoa) ikusi. Saiorako baliabideen karpetan aurkituko duzue eskari hau zehazteko lagungarri izan daitekeen hainbat jarraibide.

Zure parrokia edo Pastoral Barrutian bideo hori egiterik ez baduzu, hona hemen guk eskaintzen dizkizugunak. Bideoetako batek, gainera, gainerakoen edukirik esanguratsuena jasotzen du laburpena erara.



Katekista Zornotzan

Irakaslea

Catequista Galdakao

**BIDEOAN IKUSTEKO, EGIN
KLIK IRUDIAN**

Bideo laburpena

Gazte eskauta

Catequista Muskiz

Presidenta EEB



Otoitz giroan amaituko dugu, Ain Karem taldearen *Jesus* abestia entzunez. Hainbat aldiz entzun ondoren, leloa abestu. Egokitzen joz gero, abestiaren letra banatu, saiorako baliabideen karpetan dago-eta.

Abestiaren bideoak 10 minutu inguru irauten du, bi aldiz errepikatzen baita. Nahikoa izan daiteke behin entzutea. Kasu horretan, bideoaren iraupena 5:15 izango da.



**ENTZUTEKO, EGIN
KLIK NOTAN**

ETA ZUEK... NOR NAIZELA DIOZUE? (MK 8, 29)

YEAH!



Bilboko
Elizbarrutia
DIOCESIS DE BILBAO

Delegación Anuncio y Catequesis
Fede Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

esnatu